



**GIDALIBURUA KIROLAREN**  
**BALIOAK SUSTATZEKO**  
**ERANTZULE BERRIEI ETA**  
**HAIEN EGINKIZUNEI BURUZ**

# **GIDALIBURUA KIROLAREN BALIOAK SUSTATZEKO**

## **ERANTZULE BERRIEI ETA HAIEN EGINKIZUNEI**

### **BURUZ**

1. **Balioen ordezkaria** joko-eremuan,
2. Talde teknikoko **kiroltasunaren arduraduna** eta
3. Taldeko **kiroltasunaren eragileak**.

#### **ATARIKOA:**

Kirol-jardunak onuragarria, aberasgarria eta kalitate onekoa izan behar du eta, horretarako, begirunea eta kirolaren balioak sustatzen dituen esparru batean garatu behar du, indarkeriazko zeinahi jarrera eta jokabide ezabatuz.

Horregatik, Nafarroako kirol-entitate guztiak, hots, kirol-federazioak, klubak, erakunde eta elkarteak, lanean ari dira bizikidetza positiboa eraikitze eta kirolaren inguruko indarkeriari aurrea hartzeko, batez ere edozein adingaberen babesgabetasuna edo tratu txarra eragiten duten egoerak ikusten direnean.

Kirol-entitate guztien lehendakari eta zuzendaritza batzordeak elkarlanean arituko dira helburua bete dadin eta beren erregelamendua, prozedurak eta funtzionamendu-araudiak moldatuko dituzte xede hori betetzearren.

Hala ere, kirol-jarduera fisikoen arduradun zuzenek eta kirolariek dute erantzukizunik handiena, baita

jarduteko gaitasunik handiera ere, kirol-jarduera fisikoen esparruan jazarpenak eta bestelako eraso edo indarkeriazko jokabideak gertatzen direnean, bai prebentzioari dagokionez, bai esku-hartzeari eta ebazpenari dagokienez.

Kirol-entitateetan eginkizun horren arduradunen artean **erantzule** batzuk sortu dira modu bereziagoan ardura daitezen, landa-lan zuzenaren bidez, indarkeria prebenitu eta ezabatzeko helburuak garatzeaz, bai joko-eremuetan, bai haien inguruetan, eta sustatu dezaten, orobat, gatazkak era baketsuan konpontzeko bideak eta Kirolaren Balioen gaineko gizarte-kontzientzia.

- **“Balioen ordezkaria joko-eremuan”**. Kasuan kasuko kirol-federazio nafarrak edo kirol-ekitaldia antolatzen duen entitateak izendatuko du ordezkari hori, haren mendekoa izanen da eta arbitro-taldearekin koordinaturik jardun beharko du.

- Kirol-entitatearen talde teknikoko **“kiroltasunaren arduraduna”**. Klub bakoitzean arduradun bat edo arduradun batzuk izendatuko dira.

Era berean, “kiroltasunaren **eragileak**” ere izendatzen ahalko dira kirolarien artean, kiroltasunaren arduradunaren lana babestu eta errazte aldera.

### **1) “Balioen ordezkaria joko-eremuan”:**

Joko-eremuan balioen ordezkaria den horrek zeregin erabat berria izanen du, bermatu beharko baitu kirol-lehiaketetan zenbait balio nagusitzen direla, hala nola

begirunea eta kiroltasuna. Balioen ordezkariak Nafarroako Kirol Jokoak eta bestelako kirol-programa, norgehiagoka eta ekitaldi batzuk ikuskatu beharko ditu, arbitro-taldearekin eta federazioetako estamentuekin elkarlanean eta gidaliburu honetako eginkizun hauek betez:

**1.1.** Ikuskatzen duen kirolaren erregelamendu teknikoa eta diziplinakoa ezagutu beharko du eta bere eginkizuna zein den erakusteko bereizgarria eta janzkera eraman beharko ditu kirol-ekitaldian.

**1.2.** Kirol-federazioak indarkeria prebenitzeko ezartzen dituen programak garatu beharko ditu.

**1.3.** Gatazka arrisku handiena duten lehiaketetara joan beharko da eta gizarte-trebetasunak eta komunikazio-estrategia ez bortitzak erabili beharko ditu bere ikuskatze-lanean.

**1.4.** Arbitro-taldearekin eta gainerako heldu eta kirol-arduradunekin elkarlanean jardun beharko du bake bidezko bizikidetzaren aldeko jarrera izan dezaten joko-eremuan dauden klubeko kide guztiek, baita ikusleek ere.

**1.5.** Arbitroei lagundu beharko die indarkeria mota oro prebenitu eta ezabatzeko lanean bai bere ekimen, aholku eta ohartarazpenen bitartez, bai kanpoko laguntza eskatuz, hala beharko balitz (NKGIra, 112ra edo segurtasun indarregana joz).

**1.6.** Hauteman beharko ditu arbitroen eskumenekoak ez diren gatazka motak, lehiaketaren inguruan sortzen direnak, eta gogoeta egin beharko du haietan nahasitako guztiekin batera, pertsona horiei adituz baina, era berean, kiroltasunaren mugak ikusaraziz eta kirolaren balioak errespetaraziz.

**1.7.** Jazarpenen bat dagoela susmatzen bada, hura prebenitzen lagundu beharko du, hautematen diren irregulartasunen berri emanez eta aplikatzekoa den protokoloa ezagutuz.

**1.8.** Astero kirol-topaketen aktak bidali beharko dizkio Kirol Bitartekaritzarako Bulegoari, eta jakinarazi beharko dizkio, orobat, gertaturiko gatazkak eta zailtasun bereziko kasuak, bai eta kiroltasun eredugarriko kasuak ere. Horrez gain, bidezko diren jakinarazpen eta jarduketa guztiez ere arduratu beharko dira, hala nola kanpoko laguntza eskatzeaz, aurreko 1.4. puntuan aipatu bezala.

Balioen ordezkarien lana arbitro-taldeen eta kirol-arduradunen lanaren subsidiarioa da, eta haiekin elkarlanean egin beharrekoa, bai kirol-norgehiagokak ongi garatzeko, bai kirol-testuinguruetan ager daitezken indarkeriak edo tratu txarrak prebenitzeko. Ordezkarien eginkizuna hezigarria da. Indarkeriazko ekintzak galarazteko balioko du eta tratu ona, jardunbide egokiak eta kirolaren balioak zein alderdi hezigarria sustatu eta babestuko ditu.

## **2) Prozedura eta zereginak:**

Kirol-federazioek izendatuko dituzte, denboraldiaren hasieran eta NKGIren oniritzia dutela, balioen ordezkariak joko-eremuan. Gizon-emakume horiek frogatu beharko dute badutela oinarrizko prestakuntza egokia eta, bestalde, urtero haiendako antolatuko diren lantegi berariazkoak ere egin beharko dituzte. Era berean, aldartez jende adiskidetzaillea izan beharko dira.

NKGIk kirol-federazio guztiei bidaliko dizkie osagai bereizgarriak (txalekoa, txartela, jantziak, agiriak...) eta federazioek balioen ordezkariari banatuko dizkie. Balioen ordezkari horiek astero deituko dituzte, behar diren kirol-ekitaldi edo lehiaketara joan daitezzen (esate baterako, finalaurrekoak, finalak, lehia handiko topaketak, arbitraje federaturik gabekoak, etab.) Izendapen horien fakturazioa kasuan kasuko balioen ordezkarien kualifikazioaren arabera izanen da eta ezin izanen da egin aldibereko lehiaketei dagokien fakturaziorik.

#### BALIOEN ORDEZKARIEN ZEREGINAK:

- 2.1. Balioen ordezkariak norgehiagoka hasi baino 30 minutu lehenago bertaratuko dira joko-eremura; han daudela jakinaraziko da, baita zer eginkizun dituzten ere; bereizgarriak eta akreditazioa eramanen dituzte soinean, eta eskura izanen dituzte beren eginkizunei buruzko gidaliburua, jardunbide egokien dekalogoak eta behar den informazioa argitzeko zer ondorio ekar ditzaketen kirol-ekitaldiko partaideen jardun okerrek edo indarkeriazko jokabideek.
- 2.2. Kirol-ekitaldiak iraun bitartean balioen ordezkariak gatazkaren bat sortzen ari dela uste duten aldiro hurbilduko dira, baita ikusleen artean kiroltasunaren kontrako jokaera edo indarkeriazko jokabide argiak ikusten dituztenean ere. Halakoetan, jardunbide egokien dekalogoak erakusten ahalko dute, liskarrean nahasiriko pertsonen adituz, haiekin mintzatuz eta aholku mesedegarri eta adeitsuak emanez; eta, era berean,

arbitroarekin batera aztertzen ahalko dute ea norgehiagokak aurrera egin behar duen edo ez ote den komeni kanpoko laguntza eskatzea.

2.3. Balioen ordezkari guztiek kontuan hartu beharko dituzte gidaliburu honen jarraibideak. Hona hemen zenbait adibide ikusteko zein den hauteman beharreko egoeren tipologia eta noiz komeni den esku-hartzea eta gertaturikoa aktan jasotzea:

**GERTAKARI OHIKOEN TAULA:**


(Jar ezazu "x" bat)

<b>KIROLARIAK:</b>	
Hitzezko eraso joko-eremuan	
Eraso fisikoa joko-eremuan	
Hitzezko eraso kirol-instalazioaren esparruan	
Eraso fisikoa kirol-instalazioaren esparruan	
Arbitroaren aurkako eraso fisikoa	
Arbitroa hitzez zirikatzea	
Aulkian dauden bi taldeetako kideek hitzez elkar zirikatzea (jokalariak, taldeko ordezkariak...)	
Eten egin da giro ona eta antzematen da gatazka eta agresibitatea izateko arriskua dagoela	
Gertakariak, berdinaren arteko jazarpena izan daitekeela erakusten digutenak	
<b>AITAK, AMAK EDO IKUSLEAK:</b>	
Hitzezko eraso harmailetan edo esparruan	
Eraso fisikoa harmailetan edo esparruan	
Jokalarien aurkako hitzezko eraso	
Jokalarien aurkako eraso fisikoa	
Entrenatzaileen aurkako hitzezko eraso	
Entrenatzaileen aurkako eraso fisikoa	
Arbitroaren aurkako hitzezko eraso	
Arbitroaren aurkako eraso fisikoa	
<b>ENTRENATZAILEAK:</b>	
Arbitroa hitzez zirikatzea	
Arbitroaren aurkako eraso fisikoa	
<b>ARBITROAK:</b>	
Arbitroaren jarrera negatiboa (harroa, erasotzailea), joko garbiaren alde egin ez duena	
Arbitroaren jarrera negatiboa (pasiboa), joko garbiaren alde egin ez duena	
<b>BESTE BATZUK:</b>	
4. puntuko dekalogoetako orientazioak modu larrian edo behin eta berriz ez betetzea (*zehaztu horietatik zein)	
Jokabide sexistak	
Homofobia / LGTBIfobia	
Substantzien kontsumoa	
Gatazka pertsonala / eztabaidak, oihuak.	
Lesio larria / istripua	
Xenofobia	
Bizikidetzaren aurkako bestelako jokabideak	
<b>Kiroltasun eredugarriaren jokabideak</b>	



(\*deskribatu):

2.4. Astero, BOE bakoitzak partidako "BOEren akta" bidaliko dio NKGiri eta gatazken edo kiroltasun eredugarriko jokabideen berri emanen dio; horretarako honako datu hauek behar dira:

<small>Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua  Instituto Navarro de Deporte y Juventud</small>	
<b><u>"BOEren akta":</u></b>	
✚	Ordez kariaren izen-abizenak: _____
✚	Data: _____ Kirola / modalitatea: _____
✚	Parte hartu duten klubak: _____
✚	Gorabeheraren edo gertatutakoaren deskripzioa, eta bilakaera: _
✚	Protagonistak: _____
✚	Identifikatutako izen-abizenak eta harremanetarako pertsonarenak:
✚	Adina / kategoria: _____
✚	Egindako esku-hartzea: _____
✚	Ordez kariaren azken balorazioa: _____
	_____Sinadura:
<hr/>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• AKTA HAU ASTEAN BEHIN BIDALIKO ZAI O POSTA ELEKTRONIKOZ NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUARI.</li><li>• GORABEHEREN BAT GERTATZEN DENEAN, 2.3 PUNTUKO GORABEHEREN TIPOLOGIAKO TAULA ERE ERANTSIKO DA ETA, GORABEHERA LARRIA BADA, BEREHALA JAKINARAZIKO DA.</li></ul>	

## 2.5. BALIOEN ORDEZKARIA "EKINEAN". (Pertsona horrek beteko dituen jarraibide batzuk):

- ✚ Gidaliburua onartu eta barneratzea eta, behar bada, horri buruzko iradokizunen bat egitea.
- ✚ Dokumentu-gida honen 1. atalean zehazten diren eginkizunak betetzea, esleitzen zaizkion partidetan.
- ✚ Kirol-partida hasi baino ordu erdi lehenago agertu behar du.
- ✚ Txartela, petoa, eta kanpaina sustatzeko bestelako materialak eraman behar ditu, ikusleen artean banatzeko, edo hasieran eserlekuetan uzteko.
- ✚ Instalazioko sarreran bere burua aurkeztu behar du eta, ondoren, arbitro taldearen aurrean, baita jokatu duten taldeetako arduradun teknikoen aurrean ere (ez badute ordezkariaren betekizuna ezagutzen, deskribatu modu laburrean horren eginkizunak).
- ✚ Laguntza eskaini behar dio partidako arbitroari.
- ✚ Arau orokor gisa, harmailetan ibili behar du, eta/edo eserita egon, ageriko leku batean, ikusleen arteko giroa nolakoa den ongi ikusteko moduan.
- ✚ Partida bukatu ondoren, 15 minutuz gelditu beharko du, gutxi gorabehera, joko-eremuaren inguruan, eta han ikusi nola jokatzen duen jendeak, batez ere partidaren zehar jokaera oldarkorrak izan badira.
- ✚ Agur esan beharko dio arbitro-taldeari eta galdetu nola uste duten joan dela partida eta ea nahi duten balioen ordezkariak aktan gorabeheren bat jasotzea, NKGIk jakin dezan.
- ✚ Astelehen eta astearteetan azken informazioa emanen zaie Federazioari eta NKGIri, balioen ordezkariaren aktaren bidez edo, gorabehera garrantzitsuak izan badira, ahalik eta lasterren telefonoz deituta.

Kirol-federazioak klubetan ordezkariak egon daitezen sustatuko du, baita klub bakoitzean kiroltasunaz arduratzen den norbait ere; horretarako, klubek NKJetan izena ematen dutenean, haien izenak eskatuko zaizkie. Halaber, bi erantzule horien lankidetzaz erraztuko du.

Balioen ordezkariak eginen duten lana ez ezik, kirol-federazio bakoitzak kirolaren balioak sustatzeko beste proposamen batzuk ere garatzen ahalko ditu (esate baterako, Futbol Partiden Ebaluazioaren Erregistroa -FPEE-aplikatzea).

**3) Kiroltasunaren arduraduna.** Izendapena eta eginkizunak.

Lehendakariak, denboraldiaren hasieran, idatziz izendatuko du “kiroltasunaren arduradun” bat talde teknikoko kideen artean. Klub handietan gomendatzen da pertsona arduradun bat izendatzea kirol-modalitate/atal bakoitzean, baita kategoria edo talde bakoitzeko ere. Pertsona horiek, baita klubeko teknikariek, buruek eta helduek ere, honako hau izanen dute **helburu**: klubeko kide guztiek bizikidetzarako konpromisoa har dezaten bermatzea, eta indarkeria oro prebenitzen eta ezabatzen laguntzea, klubaren beraren ekimenei bidez eta Administrazioaren ekimenei laguntza emanez.

Kiroltasunaren arduradunen **eginkizunak** honako hauek izanen dira:

- 3.1. Bizikidetzeta positiboa, errespetuzkoa eta berdintasunezkoa erraztea eta bultzatzea kirol-testuinguruetan.
- 3.2. Jarduteko proposamenak bildu, erraztu eta antolatzea bizikidetzeta hobetzeko eta indarkeria fisikoa, ahozkoa, psikologikoa edo soziala ezabatzeko edozein kirol-testuingurutan.
- 3.3. Joko-eremuko balioen ordezkariari laguntza ematea.

- 3.4. Gatazkak kudeatzea hitz eginez, entzute aktiboa erraztuz, eta alderdi guztientzat aberasgarriak diren irtenbideak bilatuz adostasunaren bidez, baita komunikaziorako bideak ezarriz ere.
- 3.5. Errespetuz elkar eragitea, besteen eskubideak onartuz.
- 3.6. Aniztasuna eta desberdintasuna onartu eta errespetatzea kirol-jardunean.
- 3.7. Norberaren edo besteen jarrera bortitza oro baztertu eta ez onartzea, modu aktiboan.
- 3.8. Jazarpenezko jokabideen aurrean, prebentziorako eta esku hartzeko protokoloa ezagutzea.
- 3.9. Gerta daitezken jazarpen kasuen prebentzioa eta jarraipena bere gain hartzea, konpromisoa hartuz, aholkuak eskatuz eta dagokion protokoloa erabiliz.
- 3.10. Denboraldiaren hasieran, kiroltasunaren eragileen izendapenak proposatzea talde bakoitzeko kirolarien artean, kontuan hartuta kargu horretarako egokiak ote diren.
- 3.11. Lehendakariari eta zuzendaritza batzordeari laguntzea klubeko erregelamendua eta gida honetako jarraibideak koherente egiteko lanean.
- 3.12. Bitartekotza formal edo informaleko esku-hartzeak erraztea, elkarrizketa-eremuak sortuz eta gatazken aurrean trebetasun sozialak eta komunikazio estrategia ez-bortitzak baliatuz.
- 3.13. Gatazkak eta zailtasun handiko kasuak jakinaraztea NKGIko Kirol Bitartekaritzarako Bulegoari.

Halaber, kiroltasunaren eragileak diren kirolariek oso eginkizun garrantzitsua eta beharrezkoa dute bai kirolean erasoak prebenitzeko eta ezabatzeko, bai jazarpenaren prebentzioari buruzko protokoloa betetzeko. 3.1, 3.2, 3.3, 3.4, 3.5, 3.6 eta 3.7 puntuetako eginkizunez gain (kiroltasunaren arduradunarenak berdina dira), kirolari hauek kiroltasunaren arduradunak esleitzen dien lana eginen dute eta, tratu txarrak gertatzen direnean, sare soziala, elkarrekiko laguntza, begirunea eta kirolen arteko elkartasuna indartuko dituzte, behar den konfidentzialtasuna gordez.

Beren lana orientatuko duten printzipioak honako hauek dira: pertsona guztiekiko begirunea eta tratu ona, konpromisoa eta joko garbia eta kirolaren gainerako balioak.

#### **4) Jardunbide egokien dekalogoak** (Bereziki adingabeekin)

<b>4.1. KIROLAREN BALIOAK DEFENDATZEN DITUT *</b> <b>(laguntasuna, hobetzeko grina, berdintasuna, inklusioa, joko garbia, begirunea...) eta horretarako...</b>
---

- I. Kirol-entitatearen arduradunei bortizkeria prebenitzen laguntzen diet.
- II. Argi eta garbi adierazten dut edonoren aurkako eraso, mespretxu edo bazterkeriaren kontra nagoela.
- III. Harremanak zaintzen ditut, eta modu irekian entzuten eta hitz egiten dut. Errespetuz eta erasokortasunik gabe erantzuten diet frustrazio eta laidoei (egiten didatena zuzena ez bada, nik eginda ere ez da zuzena).

- IV. Jende guztia errespetuz tratatzen dut beti, bai mintzatzean bai jardutean, hau da: nola gustatzen zaidan besteek ni tratatzea, halaxe.
- V. Gatazkaren bat dagoelarik, laguntzen dut eta bihotzak baretzen ditut, modu asertiboan eta inor epaitu gabe.
- VI. Klubeko bizikidetzan parte hartzen dut eta nire iritzia ematen dut. Kide guztiei sostengua ematen diet eta ongi tratatzen ditut.
- VII. Laguntza eskatzen dut, nik edo nire ingurukoren batek arazorik izanez gero.
- VIII. Kirolaren balioak defendatzen eta gauzatzen ditut. Prestakuntza hartzen dut gatazkak konpontzeko trebetasunetan eta kiroltasunean.
- IX. Iseka edo erasoren bat ikusten badut ez dut beste aldera begiratzen; gutxienez ere gertatu denaren berri ematen diot esku hartzen ahal duen norbaiti. Susmatzen baldin badut inor gaizki pasatzen ari dela kiroltasunaren arduraduna jartzen dut jakinaren gainean. Dena delakoari hurbilduko natzaio, halaber, nire sostengua emateko.
- X. Giro ona sortzen saiatzen naiz eta laguntza ematen diet horretan saiatzen direnei.
- 

#### 4.2. KIROLARIAK

- I. Errespetuz aritzen naiz eta hala jokatzeko dut edozein kirolariarekin, ni bezalakoa ez den arren. Jokokideak laguntzat hartzen ditut.
- II. Joko-eremura ateratzen naizenean neure buruari gogoratuko diot helburua dibertitzea dela nire gustuko kirolean arituz.
- III. Arbitroaren erabakiak onartzen ditut, ados ez egonda ere. Norbaiti falta bat egiten diodanean, berehala eskatzen diot barkamenari.
- IV. Guztien joko ona eta ahalegina txalotzen ditut, kontuan hartu gabe nor diren (lehiakidea ala ez).
- V. Partida bukatutakoan, taldeko kide guztiok agur esaten diegu beste taldekoei, kide guztiak agurtuz, partidaren azken emaitza kontuan hartu gabe, eta ondoren ikusleak txalotzen ditugu.

- VI. Emaitza duintasunez partekatzen dut, bai garaipenean bai porrotean.
- VII. Lehiakideak ere errespetatzen ditut, baita arbitroak, kidego teknikoko jendea eta ikusleak ere. Jokoaren arauak ikasi eta betetzen ditut.
- VIII. Ez ditut onartzen kirolaren kontrako ekintzak, edozeinek eginda ere. Nola nahi dudan besteek ni tratatzea, halaxe tratatzen ditut nik.
- IX. Eraso gabe jokatzeko dut eta laguntzen dut istripuren bat gertatuz gero. Nahiago dut galdu tranpa eginda irabazi baino.
- X. Joko-eremuan eztabaidak edo borrokak gertatzen badira, saiatzen naiz bi alderdiak adiskidetzen edo, bestela, ez dut parte hartzen. Kirolaren balioak defendatzen ditut\*.

#### 4.3. ENTRENATZAILEAK ETA TEKNIKARIAK

- I. Haurren adinera eta haien gaitasunera egokitzen ditut entrenamenduak eta eskakizunak.
- II. Irakasten diet lehiakideak, arbitroak eta haien erabakiak errespetatzen.
- III. Denbora ematen dut nire kirolariek jokoko eta bizikidetzako arauak eta erregelak lantzen.
- IV. Jokalari guztiei parte hartzeko eta disfrutatzeke aukera berberak ematen dizkiet.
- V. Nire kirolariei irakasten diet kirol profesionalaren eta kirol amateurren arteko aldea, eta familiei ere azaltzen diet zein den alde hori.
- VI. Gogoratzen dut haurrek ez dutela jokatzeko nire kirol-interesak asetzeko eta haurrei ere gogorarazten diet kirola dibertimendua dela.
- VII. Ezagutza erregelamenduzkoak, teknikoak eta pedagogikoak eguneratzen ditut.
- VIII. Hirugarren zatiaz gozatzen irakasten diet. Harreman osasuntsuak eta bizikidetzak bultzatzen ditut, begirunez tratatzen dut jende guztia eta ez dut inor irrigarri uzten.
- IX. Lehiaketetan, pertsona guztiak errespetatzen ditut, eta bukaeran entrenatzaileak, lehiakideak eta arbitroak zoriondu eta agurtzen ditut.
- X. **Ekintza guztietan (nireak eta taldekoak) joko garbia eta zuzentasuna bultzatzen ditut eta kirolaren balioak defendatzen ditut\*.**

#### 4.4. FAMILIAK.

- I. Hurrei uzten diet erabakitzen kirola egin nahi duten ala ez, eta zein modalitate, eta dibertitzen dituen horretara bideratzen ditut.
- II. Akats eta porroten aurrean, nire seme-alabak eta beste haurrak adoretzen ditut, kexarik edo presiorik gabe.
- III. Semea edo alaba jokoaren arauak betetzera bultzatzen dut eta erakusten diot ez direla zertan zalantzan jarri arbitroen, epaileen eta entrenatzaileen erabakiak eta zintzotasuna.
- IV. Seme-alabei irakasten diet zintzotasuna garrantzitsuagoa dela garaipena baino.
- .V Nire taldearen eta beste taldearen joko ona txalotzen dut.
- .VI Kiroleko abusu fisiko eta hitzezkoak ezabatzeko ekimen guztiak laguntzeko moduan jokutzen dut.
- .VII Jokalari, entrenatzaile, arbitro eta epaile guztiak errespetatzen ditut eta haiekin errespetuzko hizkuntza eta keinuak erabiltzen ditut; halaber, begikotasunez hitz egiten diet, nahiz eta ados ez egon haiekin.
- .VIII Konpromisoa hartzen dut seme-alabei azaltzeko haien lehiaketak eta kirol profesionalekoak desberdinak direla.
- .IX Zeinahi eratako eta edozein pertsonari zuzendutako indarkeria erabiltzea gaitzesten dut, modu aktiboan.
- .X Kirolaren balioak defendatzen ditut\*.

#### 4.5. IKUSLE ONEK HONAKO EZAUGARRI HAUEK DITUZTE:

- I. Parte-hartzaile guztien ahalegina eta saio onak txalotzen ditu, emaitza alde batera utzita. Gogoratu haurrek ez dutela jokatzeko ikusleak pozik uzteko; izan ere, helburua da haurrak dibertitzea eta kirolaren bidez hezteko pertsona gisa.
- II. Jardueran parte hartzen duten pertsonetikiko errespetua adierazten du: Kirolariak, entrenatzaileak, arbitroak, epaileak eta ikusleak (guztiei zor zaie begirunea eta guztiak dira beharrezkoak).
- III. Ez da haserretzen akatsa egiten duenarekin eta ez du iraintzen; komentario positiboak besterik ez dizkio egiten, adoretzeko asmoz.
- IV. Arbitroaren erabakiak errespetatzen ditu eta erabakiak betetzera akuilatzen ditu besteak.



- V. Gaitzesten ditu edozein motatako indarkeria edo errespeturik gabeko portaerak. Ikusleek edo edozein parte-hartzailek eragindakoa.
- VI. Askatasuna ematen du jokalariek beren erabakiak har ditzaten eta goza dezaten, oztopatu gabe (garrantzitsuena da haurrak dibertitzea eta pertsona modura heztea kirolaren bidez).
- VII. Partida bukatu ondoren ikasi eta hobetu duena baloratzen du, nork irabazi edo galdu duen baino.
- VIII. Beti saiatzen da arauak betetzen eta kiroltasuna erakusten, eta jokaera hori defendatzen du ikusleen aurrean.
- IX. Saiatzen da ikusle hezitzailea izaten; horretarako dekalogo hau sustatzen du, adingabeek helduen eredia antzeratzen dutela jakitun izanik.
- X. Kirolaren balioak defendatzen ditu\*.

### **5) Kirolaren balioak partekatzea.**

NKGI Kirolaren Balioen Plana garatzen ari da. Bertan hobetzeko grina, laguntasuna, bizikidetza, ahalegina, berdintasuna, inklusioa, gizarteratzea, joko garbia, begirunea, erantzukizuna, elkartasuna, tolerantzia eta abar ezinbesteko baldintzak dira kirol-jardun fisikoa egokia izan dadin haurtzarotik helduarora bitarte. Azken helburua da pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak errespetatzea, kirolaren balioak gizartearen balio etikoen edo giza balioen baliokideak baitira; izan ere, balio horiek errespetatzen baditugu gizarte justuagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa izanen dugu, baita osasuntsuagoa ere ("*Bizitzan, kirolean bezala*").

Kirolaren Balioen Plana kirol-jardun fisikoarekin zerikusia duten eragile guztiei dago zuzendua: adin guztietako kirolariak (batez ere eskoletakoak eta gazteak), gurasoak, kirol-teknikariak, arbitro-taldea,

irakasleak, kazetariak...; jarduketa esparruak ondoko hauek dira: kirol-federazioak, toki entitateak, kirol-klubak eta kiroldegiak, ikastetxeak eta hedabideak.

Horregatik guztiagatik aipatu beharra dago kirolaren balioez, kiroltasunez eta indarkeriaren prebentzioaz arduratzen diren pertsonek elkarlanean aritu beharko dutela administrazioekin, kirol-erakundeekin, eta kirol-jardunean eta haien inguruan aritzen diren guztiekin; hala, guztion artean, lortuko dugu kirolak balio dezan pertsona gisa aberasteko eta bizitzarako ikaskuntza izateko, jende guztiarekiko eta kirolaren balioekiko errespetuan, are eta gehiago adingabeak eta gazteak direnean.

NKGIk aholkularitza eta prestakuntza berariazkoa eskainiko die balioen ordezkari izendatutako pertsonei. Zehazki, Kirol Jokoen Bulegotik eta Kirol Bitartekaritzarako Bulegotik jarraipena egingen zaio kirol-federazio bakoitzak eta balioen ordezkari bakoitzak eginiko lanari.

## **6. Helbide interesgarriak:**

### **NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUA**

NKGIren webgunean laguntza-materialak eta orientazioak daude deskribatutako erantzule berriendako, bai eta kirolaren balioen sustapenean lan egin edo laguntzen dutenendako ere:

<https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/oficina-de-mediacion-deportiva>

Helbidea: Arrieta kalea, 25, 1. •  
31002 Iruña

Telefonoa: 848 427892 - Faxa: Tel.  
848 42 36 28

[infoegindj@navarra.es](mailto:infoegindj@navarra.es)

#### ***Kirol Jokoen Bulegoa***

Helbidea: Arrieta kalea, 25, 1. •

31002 Iruña  
Telefonoa: 848 427 829  
[jdn@navarra.es](mailto:jdn@navarra.es)

***Kirol Bitartekaritzarako Bulegoa***

Helbidea: Arrieta kalea, 25, 1. •  
31002 Iruña  
Telefonoa: 848 427 845  
[mediaciondeportiva@navarra.es](mailto:mediaciondeportiva@navarra.es)

**LARRIALDIAK**

Larrialdiak: 112

**FORUZAINGOA**

***Laguntza Brigada***

Helbidea: Fuente de la Teja, z.g.  
• 31006 Iruña Telefonoa: 848 426  
403

Helbide elektronikoa: [pfasistencial@navarra.es](mailto:pfasistencial@navarra.es)

***Aginte eta koordinazio zentroa***

Telefonoa: 948 202 920

**GUARDIA ZIBILA**

***Pertsonen kontrako Delituen eta Delitu Telematikoan  
Brigada***

(Polizia Judizialaren Unitate Organikoa -  
Pertsonen kontrako delituen arloa)

Helbidea: Galizia etorbidea, 2 • 31003  
Iruña

Telefonoa: 948 296 850, 5262 luzapenarekin, eta 062 (24  
ordu)

**UDALTZAINGOAK ETA TOKIKO POLIZIAK**

Telefonoa: 092, 112 eta SOS NAFARROA 650 738 005  
(azken horrek SMS formatuko mezuak igortzeko aukera  
ematen du)

Kirolaren eta Gazteriaren zuzendari nagusia, Rubén  
Goñi Urroz jauna